

Luis Pedro Peña Santiago bere lagunen oroitzapenean

Eginkizun atsegina da oroitzapen ahalegin sentikorrean Luis Pedro Peña Santiagoren ohorez egindako argitalpen honetan parte hartzea, ahaztu ezinezko laguna baitzen, gizon ona, berez ona, alai inolako zurikeriarik gabe, adiskidetasunari atxikia, bere lagunen egiazko lagun, ordainik eskatu gabe eskaintzen zekiena. Luis Pedrori buruz hitz egitean, zenbat oroitzapen datozkit gogora! Ia zain edukiarazten ninduten arratsalde erdiko dei haiek, hain sarriak baitziren...; *Graphos* dendako atzealdera egin ohi nituen bisitaldiak, hain txikia eta abegikorra zen eta orrialde, ohar eta koadernoan nahasian Luis Pedroren etengabeko jardunak nahasian uzten zuen denda-atzealde hartara egindako bisitak; ondo atondutako mahai baten inguruan egin ohi genituen bilera haiek, gure asmo eta proiektuei buruzko berriketak egiteko aukera paregabea, elkarren artean egin genezakeen lanen baterako egitasmoa aztertze bidea, esaterako, eskaintzen ziguten otordu haiek.

Luis Pedro Peña Santiagoren lan zabalari hurbiltzeko, eskuartean duzun idazki honek eskatzen zuen neurrian, aukeraketa-lan batean hasi beharko nuke (eta beti izango nintzateke ez asmatzeko edota aukera eztabaidagarria egiteko arriskuan), eta ez dut inolako asmorik horretarako. Edozein aukeraketak argi utziko luke, betiere, zati handi bat bazterturik geratuko litzatekeela, eta horri ihes egiteko asmoz, Peña Santiagok idatzitako lehen liburua aipatuko dut, hasteko: *La argizaiola vasca. Creencias, ritos y costumbres relacionados con la misma* izenekoa, hain zuzen, Auñamendi bilduman eta 1964. urtean argitaratu zuena eta, nik dakidanez behintzat, bere azkenekoa izan zena *Guipúzcoa ignorada*, Gipuzkoako foru Aldundiak argitaratutako Bertan bildumako 2. zenbakia.

Baina bi azterketa-lan horien arteko bidean geldialditxo bat egiteko baimena zilegi bazait, gogoratu nahiko nuke Luis Pedro eta biok batera idatzitako liburu bat, *El mar de los vascos II, leyendas, tradiciones y vida* (Txertoa argitaletxea, 1982) izena duena. Bertako orrialdeetan, benetakoa edo erreala deituko diodan atala, beste mundu batetik hurbil dagoen batekin, elezaharrenarekin esan nahi dut, nahasten da eta alor bi horietatik, ez beti elkarren artean bereizten errazak, iheskorrena Peña Santiagok jorratzen eta

lantzen du. Liburuko hainbat kontakizunek sinesmen eta portaera horiek barneratzea eta gauzatzea ahalbidetzen duten pentsamendu-moldea sortu eta garatzeko ingurunea nola osatzen den ulertarazteko ikuspegia errazten du. Uste dut aipatutako hiru lan horiek laburbiltzen dutela, neurri handi batean, nire adiskide maitea izan zen etnografo eta mendizaleak zuen kemena eta lanerako grina. Aipatutako hoiriez gain, ez dut ahaztuko hemen mendizaletasuna eta etnografia, batez ere, gai zuten aldizkarietan Peña Santiagok egindako lankidetzak garrantzitsuak eta *El Diario Vasco* egunkariako astero orrialdea, halako etengabeko jarraipen eredugarri hogeita hamar urtetan hutsik egin gabe osatua.

Luis Pedro Peñari buruz egokia iruditzen zait esatea bizitzan zehar etnografiaren ikerketari eskaini zion lanketa oparoaren bitartez argi adierazi zigula bazuela berekin euskaraz deitzen zaiona, berezko dohain bat, eta horrek dakarkit burura, eta ez da lehenengo aldia, sendagile bati buruz aipatu ohi dugun berezko senaren antzeko zerbait zela, inongo unibertsitateko gelan ikasten ez dena eta berezko behar duena, berezko dohaina.

Bere arreta piztu zuten gauzetan aitzindari bat izan zen Peña Santiago, ukitu poetiko batez goxatutako azterketak egin ohi zituen, egindako lanari buruzko erakargarritasuna sortzen zuen poesia baten ukituarekin, hain zuzen. Hemen egoki datorrelakoan, argitaratutako azken liburuan idatzi zuen iragarpen kutsuko ataltxo hau ekarri nahi nuke hona, Mendaro, Astigarribia eta Sasiolari buruzko ataltxoak:

Deba arroko behealdea, Gipuzkoan geratzen zaizkigun leku ederrenetakoa da oraindik. Denbora laburrez izango dela iruditzen zait, dena dela, baina zer egingo dugu, pentsa dezagun ikusteko eta bertako edertasuna bizitzeko aukera izan dugula, eta Gipuzkoa berriak, ate joka datorren horrek, urte gutxi barru, ez duela inolako antzik izango guk ezagutu dugunarekin. Ez ditut behar adinako ezagutzak etorkizuneko Gipuzkoa hori hobea edo okerragoa izango den jakitako, baina ondo dakidana hauxe da: oraingotik desberdina izango dela eta zerbaiten amaiera dakarren garai batean bizi garela, zerbait berria dela orain datorrena.

Oroitzapen ahaztezina da Luis Pedro Peña Santiagok nire baitan utzi duena, meritu askoko bere lan didaktikoen irakurketak behin eta berriz pizten didan oroitzapena. Bera, gure kulturaren itzal handiko gizona izan da, eta da.



Luis Pedro Peña Santiago bere lagunen oroitzapenean / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Bota zahar batzuei: ibilbide hautatuak geografía gizatiar batean zehar* / Luis Pedro Peña Santiago ; Juan Manuel Sotillosen laguntzarekin. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 230 or. : ir. ; 27 cm. - P. 14-15